



UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES
www.uik.eus



Elkanoren Euskal Herri barneko bidaia

2020.09.23-24



Kod. 01-20

Jarduera mota: **ikastaroa**

Zikloa: **Historia**

Kokalekua: **Miramar jauregia**

Hizkuntza: **euskara eta gaztelera**


Balio akademikoa: **20 ordu**

www.elkanofundazioa.eus

ELKAN

Euskaldunak
mundubiran,
berriro ere

Azalpena



Juan Sebastian Elkanoren (1487-1526) bizitza Europako historiaren aldaketa handiko une batean garatu zen, Erdi Arotik Aro Modernora igarotzean. Lehen mundubiraren 500.urteurrena aukera aparta da Juan Sebastian Elkano eta Espezien uhartedira ontziratu ziren gainerako euskaldunak bizi izan ziren ingurunea ezagutzeko, ikertzeko eta sakontzeko. Ikastaroaren interes-gunea mundubiraren testuinguru sozioekonomikoa da, pertsona horien bizimodua hobeto ulertzeko.

Ezaguera honek nabigatzaile haiek hobeto ulertzera eramango gaitu; zergatik ontziratu ziren eta zein ziren haien motibazio sakonak hobeto ulertzera, alegia. Eta gaurko perspektibatik hausnartuta, Elkanoren bidaiak izandako ondorioek gure mundua nola aldatu zuten ikusiko dugu.

Konferentziekin eta txostenekin egingo dugu, baina gure begiegin ikusiz garai hartako Getaria hiribilduaren aztarnak, edo Oriako itsasadarrean itsasontzi haiek non eraikitzen ziren ere. Eta hori guztia garaian adituak diren historialarien eskutik.

Helburuak

- Juan Sebastian Elkanoren garaiko Euskal Herrian bizi ziren gizon eta emakumeen eguneroko bizitza, kezka eta interesen berri izatea, eta garai hartako testuinguru sozio-ekonomikoa ezagutzea.
- Bidaia haren ondorioei buruz gogoeta egitea, eta 500 urtetik gaurdainoko igarotzean gure mundua zein neurritan aldatu den hausnartzea.
- 1500.eko hiribildu eta itsasadar bat nolakoak izango liratekeen bertan ikustea

Ahozko komunikazio onenari diploma

Bertaratuek hainbat diziplinako lanak aurkeztu ahal izango dituzte gaiari buruz. Horretarako 250 hitzetako laburpena bidali beharko da info@elkanofundazioa.eus helbidera, 2020ko abuztuaren 30a baino lehen.

Horien guztien balorazioa egingo da eta egileei jakinaraziko zaie onartuta dagoen edo ez. Elkano Fundazioak diploma bat emango dio aurkeztutako komunikazio onenari. Informazio gehiago www.elkanofundazioa.eus



PROGRAMA

IRAILAK 23

Miramar jauregia, Donostia

09:00 - 09:30

Akreditazioa

09:30 - 09:45

Inaugurazioa

09:45 - 11:00

Inaugurazio konferentzia: *Lehen mundubira garaiko Euskal Herriko eguneroko bizitza*
Beatriz Arizaga, Kantabriako Unibertsitatea.

11:00 - 11:30

Kafea

11:30 - 12:45

Mahai ingurua : Mundu berri bat.

Moderatzailea, Alvaro Aragón, EHU-UPV

- *500 urte: Elkano aroa eta "lex mercatoria", berrikuntza social eta juridikoaren iturri.*
Juan José Álvarez, EHU-UPV
- *Gizonak itsaso zabalean. Eta emakumeak?*
Janire Castrillo, EHU-UPV
- *Patata, arto eta tomaterik gabeko gastronomia.*
Aitor Arregi, Elkano Jatetxea, Getaria

12:45 - 14:00

Ahozko komunikazioen saioa

Diploma komunikazio onenari

IRAILAK 24

Getaria

08:30 - 09:00

Getariako kofradiara autobusez

09:15 - 10:00

Hitzaldia: *Nolako zen Elkanoren Getaria?*
Xabier Alberdi, Euskal Itsas Museoa.

10:00 - 10:45

Hitzaldia: *Nao eraikitzaileak eta burdinolak.*
Lourdes Odriozola, Eusko Ikaskuntza.

10:45 - 11:15 Galderak eta solasaldirako unea.

11:15 - 11:45

Kafea

11:45 - 12:45

Bisita gidatua: *Getaria ezagutzen.* San Salvadorreko eliza, Elkano familiako orubea, monumentua...
Xabier Alberdi, Euskal Itsas Museoa.

12:45 - 13:30

Harrera Getariako Udaletxean.

13:30 - 14:30

Donostiara itzulera Oriotik eta erribera ontziolak kokatuta zeuden itsasadarretik geldialdia eginez.

Elkanoren Euskal Herri barneko bidaia

Zuzendariak

Daniel Zulaika

Elkano 500 Fundazioa, kontseilu aholkularia

Ion Irurzun

Elkano 500 Fundazioko zuzendaria

Matrikula: www.uik.eus

Informazioa gehiago:

UDA IKASTAROAK info@uik.eus - www.uik.eus

Miramar Jauregia -Mirakontxa Pasealekua ,48 - 20007, Donostia Tlf: 943 21 95 11